

Prof. Dr. Juan Rodríguez Soriano (1933-2010)

*Juan Rodríguez Soriano
jauna (1933-2010)*



Prof. Dr. Juan Rodríguez Soriano

A. Valls i Soler

Catedrático de Pediatría. Universidad del País Vasco.

La pediatría está de luto. El pasado día 13 octubre falleció en Getxo, Juan Rodríguez Soriano, Catedrático de Pediatría de la Universidad del País Vasco/E.H.U, pionero de la nefrología infantil española y mundial, extraordinario investigador y gran maestro.

Nació en Barcelona el 5 de marzo de 1933, estudiando Medicina en la Universidad de Barcelona, obteniendo los Premios Extraordinarios de Licenciatura y del Doctorado. Era pediatra desde 1959.

Inició su profesión en el Hospital Clínico de Barcelona. En 1959 realizó un periodo formativo en París con el prestigioso pediatra Prof. Pierre Royer en el "Hôpital des Enfants Malades". Posteriormente, se trasladó a Estados Unidos. En el Hospital y Colegio de Medicina "Albert Einstein" de Nueva York, continuando su carrera docente e investigadora.

Regresó a Barcelona en el año 1967, siendo Jefe Clínico en el Hospital Infantil Vall d'Hebrón, hasta 1970. Allí conoció a M^a Jesús Vita, radióloga infantil, que sería su inseparable mujer y madre de sus tres hijos.

En 1970, se hizo cargo del Departamento de Pediatría del hoy Hospital Universitario de Cruces en Barakaldo, dónde trabajó hasta su jubilación en 2003.

Fruto de su gran inteligencia, ya durante su periodo en EE.UU. publicó en 1967 la descripción original de una nueva enfermedad, "La acidosis tubular renal proximal", hallazgo que marcó toda su vida profesional. Pero su obra científica ha sido ingente (más de 300 publicaciones, libros, mo-

Doluz dago pediatría. Urriaren 13an, Getxon, Juan Rodríguez Soriano hil zen, EHUko Unibertsitateko Pediatriako katedraduna, Espainiako eta mundu osoko haur-nefrologiako aitzindaria, aparteko ikerlaria eta maisu handia.

Bartzelonan jaio zen, 1933ko martxoaren 5ean. Bartzelonako Unibertsitatean egin zituen ikasketak, eta Lizentziaturako eta Doktoregoko Aparteko Sariak lortu zituen. 1959. urteaz geroztik pediatra zen.

Bartzelonako Clínic Ospitalean ekin zion lanbide-ibilbideari. 1959an, bere prestakuntza osatu zuen Parisen, "Hôpital des Enfants Malades" ospitalean, Pierre Royer pediatra ospetsuarekin. Ondoren, AEBra joan zen, eta, New Yorkeko "Albert Einstein" Ospitale eta Medikuntza Eskolan, irakasle- eta ikertzaile-karrearekin jarraitu zuen.

1967an Bartzelonara itzuli zen, eta Vall d'Hebrón Haur Ospitaleko Buru Klinikoa izan zen, 1970era arte. Han ezagutu zuen M^a Jesús Vita, haur-erradiologoa, haren lagun banaezina eta haren seme-alaben ama.

1970ean, Barakaldoko Gurutzetako Unibertsitate Ospitaleko Pediatría Departamentuko ardura hartu zuen, eta bertan lan egin zuen 2003an erretiroa hartu zuen arte.

Adimen handiko gizona zen eta AEBko egonaldian, 1967an jada, gaixotasun baten jatorrizko deskribapena argitaratu zuen: "Giltzurruneko azidosi tubular proximala". Aurkikuntza horrek bere bizitza profesional osoa markatu zuen. Baina haren lan zientifikoa itzela izan da: 300dik gora argitalpen, liburuak, monografiak, hitzaldiak eta abar. Halaber, sari

nografías, conferencias, etc.). También lo han sido los premios y reconocimientos que recibió a nivel nacional e internacional.

En el hospital de Cruces realizó su labor asistencial, docente e investigadora, liderando un grupo de entonces jóvenes pediatras, muchos formados en EE.UU. como él, que impulsaron la asistencia pediátrica especializada y potenciaron la formación de sub-especialistas pediátricos, pero a la vez siempre con una amplia visión de la imprescindible concepto de la pediatría general como base. Juan formó a más de 300 pediatras, que recibieron sobretodo su ejemplo de honestidad y buen quehacer profesional en pro de la salud de los niños. Sus increíbles dotes docentes, conocimientos pediátricos, capacidad de análisis y de llegar al diagnóstico correcto, han sido reconocidas por todos. Ha sido un maestro extraordinario.

Su curiosidad inacabable fue el motor de su labor investigadora; siendo socio fundador de la Sociedad Europea de Investigaciones Pediátricas y de la europea y nacional de Nefrología Infantil, así como miembro de honor de sociedades científicas de todo el mundo. Fue además presidente de la Sociedad Vasco-Navarra de Pediatría

Tras su jubilación en 2003, siguió activo intelectualmente y disfrutó del privilegio de ver crecer junto a él a sus dos nietos.

Por todo esto, Juan ha sido un médico pediatra irrepetible, sin lugar a dudas el pediatra vasco y español de mayor prestigio internacional.

Desde hace varios años la SVNP le dedicaba una de las reuniones científicas anuales, a partir de este momento pasaran a denominarse Memorial Prof. Rodríguez Soriano en su honor.

En nombre de los compañeros de la Sociedad Vasco-Navarra de Pediatría, te recordamos con emoción.

Descansa en paz, querido Juan. Tu labor te sobrevivirá. Nunca te olvidaremos.

eta aitorpen ugari jaso ditu bai nazioan bertan bai nazioartean.

Gurutzetako ospitalean, asistentzia-, irakaskuntza- eta ikerketa-lanak egin zituen, eta pediatra gazteez osatutako talde bat zuzendu zuen (pediatra gazte horietako asko AEBn heziak ziren, bera bezalaxe). Talde horretako ki-deek asistentzia pediatriko espezializatua eta azpi-espezialista pediatrikoen prestakuntza sustatu zuten, betiere pediatría orokorraren ikuspegia zabalean oinarritua. Juanek 300dik gora pediatra prestatu zituen, eta zintotasunaren eta moduz egindako lanaren eredu izan zen haientzat, betiere haurren osasuna helburu hartuta. Makina batek aitortu dituzte haren irakaskuntzarako gaitasun bikainak, haren pediatriako ezagutzak, haren azterketa-ahalmena eta diagnostiko zuzenera heltzeko gaitasuna. Maisu aparta izan da, zalantzarik gabe.

Etengabeko jakingura izan du ikerketa-lanaren eragile, bizitza osoan. Pediatriako Ikerketen Europako Elkartearen eta Haur Nefrologiako Europako eta Espainiako Elkarten bazkide fundatzailea izan da. Era berean, mundu osoko elkarte zientifikoetako ohorezko kidea izan da, baita Euskal Herriko Pediatría Elkarteko lehendakaria ere.

2003an erretiroa hartu ondoren, intelektualki aktibo jarraitu du, eta, aldi berean, bi bilobak bere ondoan hazten ikusteko pribilegioa izan du.

Hori guztia dela eta, mediko pediatra aparta izan da, nazioartean prestigiorik handiena izan duen pediatra euskalduna eta espainiarra, inolako dudarik gabe. Duela zenbait urtetatik, Euskal Herriko Pediatría Elkarteak urteko bilera zientifikoetako bat eskaini izan dio, eta aurrerantzean honako izen hau izango dute haren omenez: "Profesor Rodríguez Soriano" memoriale.

Euskal Herriko Pediatría Elkarteko kideen izenean, bihotz-bihotzez gogoratuko zaitugu.

Hartu atsedean bakean, Juan maitea. Zure lanak irauarazi egingo dizu. Ez zaitugu ahaztuko.